



GURASOENTZAKO EUSKARA IKASTAROAK (eta izena nola eman ikaspostu libreak betetzeko herritarrei oro har eskaintzen zaizkien itxarote zerrendetan)

I. PROGRAMAREN HELBURUAK

- Gurasoei euskara irakastea, seme-alabekin euskaraz hitz egin ahal izateko eta haurrek eskolan ikasten dutena indartzeko.
- Aurreko helburuari erantzuteko, Udalak euskara ikasteko taldeak antolatuko ditu, A1etik C1era bitartean (lehenago 1etik 12 urratsera bitartean; ikus lehen eranskinean curriculum berriaren eta zaharraren arteko parekotasunak).
- Gurasoekin osatzen diren taldeetan ikaspostu liberrik badago, itxarote zerrendetan izena ematen duten lagunak ere onartuko dira. Ez dute aukera hori izango 55 urtetik gorakoentzako, merkatari-ostalarientzako edo atzerritarrentzako ikastaro berezietara joateko baldintzak betetzen dituztenek.

II. BETEBEHARRAK

a) Taldeak antolatzeko

a1) Ikasle berrientzat

- 1) **2000az** geroztik jaio den **haur baten guraso** izatea.
- 2) A1ean hasteko ez bada, euskaltegietan mailaketa-proba egitea. Salbuetsita daude 2016-2017 ikasturtean euskaltegietan ikasi dutenak. Azken kasu honetan daudenek lortutako emaitzen berri ematen duen euskaltegiaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- 3) Ikastaroan ematen diren eskola orduen ehuneko 80ra joatea. Gutxieneko hori betetzen ez dutenek 2018-2019 ikasturteko udal programan ikasten jarraitu nahi badute, udal ordenantza fiskal eta prezio publikoetan ezartzen den matrikula-sari arrunta ordaindu beharko dute.

a2) 2016-2017 ikasturteko ikasleentzat

Ikastaroan ematen diren eskola orduen ehuneko 80ra joatea. Gutxieneko hori betetzen ez dutenek 2018-2019 ikasturteko udal programan ikasten jarraitu nahi badute, udal ordenantza fiskal eta prezio publikoetan ezartzen den matrikula-sari arrunta ordaindu beharko dute.

b) Taldeak —a) atalekoak— osatzeko: ITXAROTE ZERRENDAK

- 1.- a) atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztenek eman ahal izango dute izena. Ikastaro berezietarako betebeharrak betetzen dituztenak onartuak izateko lehenago burutu beharko dituzte berezko ikastaro horiek.
- 2.- A1ean hasteko ez bada, izena emateko orrian adierazi beharko dira egindako azken azpimaila, data eta ikasi den euskaltegia.

III. IZENA EMATEA

- Gizarte etxeetan (ikus ikastaroen taula, XI. atalean).
- Matrikula saria: 105,6 euro (arrunta) eta 80,8 euro (murriztua). Langabezian daudenek, Lanbideren Izena Emateko Aldiei buruzko Ziurtagiria aurkezten badute, % 15eko hobia jasoko dute. Ziurtagiri hori eskuratu denetik bulegoetan ordaintzeko aurkeztu arte gehienez zazpi egun igaroko dira eta agirian “egungo lan-egoera” izeneko eremuan “langabea” datua agertu beharko da.



- Matrikula sari murriztua honako hauek ordainduko dute: ikasle berriek eta 2016-2017 ikasturtean matrikulatuta egonik eskolen %80tik gorako asistentzia izan dutenek; matrikula sari arrunta, berriz, %80tik beherako asistentzia izan dutenek.
- Itxarote zerrendan izena emanda daudenek ez dute ordainduko Udalak haiei ikaspostu bat libre gelditu dela baieztatu arte.

- **Aurkeztu beharreko agiriak:**

a) II a)-ko ikasleak (2000az geroztik jaiotako seme-alaben gurasoak ikasle berrien kasuan, edo 2016-2017 ikasturteko ikasleak)

- **Ikasle guztiek**, bai berriek baita 2016-2017 ikasturtekoek ere, **izena emateko orria** bete beharko dute, baldin eta azken horiek Interneten bidez egin ez badute matrikula.

- **Txandaka ikasi nahi dutenek** lan egiten duten enpresaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute, zeinek frogatuko baitu txandakako lan-ordutegia dutela. Agiri horrek txandaka lan egiten duenarentzat baino ez du balio.

- Langabeen **% 15eko hobaria** eskatu nahi dutenek lehenago aipatutako Lanbideren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Aurrekoek gainera, ondokoa ere aurkeztu beharko da, talde bakoitzak berea:

▪ **Ikasle berriak (2016-2017 ikasturtean izena eman ez zutenak)**

- A1erako bada, eta Erroldako datuak Famili Liburuarekin bat ez badatoz, eskatzailea eta seme-alabak ageri diren familia-liburuko orrien fotokopiak. Bat badatoz, udal langileak erroldan egiaztatuko du.
- Beste (azpi)maila baterako bada, aurrekoan jasotakoaz gainera, euskaltegiaren mailaketa-probaren emaitza edo 2016-2017 ikasturtean egindako ikasketena. Agirian agertzen den azpimailako edo aurreko azpimailako taldeetan bakarrik eman ahal izango dute izena.

▪ **2016-2017 ikasturtean izena eman zutenak**

- Ikastaroa amaitu bazuten, dagokien taldean emango dute izena; bukatu ez bazuten, 2016-2017 ikasturtean hasi zuten azpimaila errepikatu beharko dute.

b) II b)-ko ikasleak (itxarote zerrendak)

- Arauon bukaeran eskaintzen den eranskina bete beharko dute. Ez da txandakako izen ematerik onartuko.

IV. IZENA EMATEA INTERNETEN BIDEZ

Udal webaren bidez burutuko da (www.vitoria-gasteiz.org). 2016-2017 ikasturteko ikasleek bakarrik egin ahal izango dute, baina ez denek. Ezin izango dute egin ondoko hauek:

- txandaka ikasten dutenek
- 2016-2017 ikasturtean ikasi badute ere, A1 berriro egin behar dutenek
- % 15eko hobaria ikasten dutenek Lanbideren ziurtagiria udal-bulegoan aurkeztea beharrezkoa delako hobaria eskuratzeko.



V. IZENA EMATEKO EPEAK

II a-ko ikasleak (2000az geroztik jaiotako seme-alaben gurasoak eta 2016-2017ko ikasleak)

2017ko irailaren 1etik 13ra bitartean egin beharko dute matrikula. Taldeak itxiko dira baldintzak betetzen dituzten 18 lagunek izena ematen dutenean. Beteta daudenean, horietako batean ikasi nahi dutenek itxarote zerrendan eman ahal izango dute izena. Zerrenda horren funtzionamendua VI. atalean arautzen da.

2017ko irailaren 16tik 21era bitartean, izena eman eta talderik gabe geratu direnei telefonoz deituko zaie, osatu diren eta bete gabe dauden taldeetara aldatzerik izan dezaten. Aldaketa egin nahi ez badute, ordaindu duten matrikula saria itzuliko zaie. Horretarako eskaera aurkeztu beharko dute eta beren kontu korrontearen zenbakia adierazi.

II b-ko ikasleak (itxarote zerrendak)

Itxarote zerrendan izena emateko epea 2017ko irailaren 1etik urriaren 20ra bitartean egongo da zabalik. Irailaren 26tik aurrera eta urriaren 20ra arte zerrendetan izena emanda daudenei telefonoz deitu eta eskainiko zaizkie taldeetan hutsik geratzen diren ikaspostuak.

Honako hauek izango dute itxarote zerrendetan izena emateko aukera:

- Baldintzen II b) atalean ezarritakoa betetzen dutenak.
- Baldintzen II a) atalean ezarritakoa beteta ere matrikula jarritako epeetan egin ez dutenak (taldeak bete direlako edo epetik kanpo egoteagatik).

VI. ITXAROTE ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA

Honako hauek izena eman ahal izango dute zerrenda horietan:

1) I. taldea

- 2000az geroztik jaio den haur baten guraso izanda edo 2016-2017 ikasturteko ikasle izanda, 2017ko irailaren 1etik 13ra bitartean izena ematerik izan ez dutenak taldeak bete direlako.

2) II. taldea

- I. taldekoa izanda, izena emateko epea pasa zaiena.

- Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen beste programetako ikasleak —55 urtetik gorakoak, merkatari-ostalariak edo AISA (atzerritarrentzako ikastaroak)— ikastaro berezi horiek burutu badituzte. Egin ez badituzte, programa horietako ikastaroetan eman beharko dute izena.

- Herritarrak oro har.

Lehen taldekoek lehentasuna izango dute bigarren taldekoen aldean. Egoera berbera bada, kontuan hartuko da eskabidea egiten den eguna eta ordua. Itxarote zerrendetan txandakako eskaerarik ez da onartuko, ezta programa honetako beste talde batean izena emanda daudenen eskaerarik.

Udalak ikaspostu bat libre geratu dela baieztatu ondoren, ikasleak ordaindu beharko du taldean hasten den uneari dagokion matrikularen zati proportzionala.



VII. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

2017ko urriaren 2an hasiko dira eskolak, eta 2018ko ekainaren 1ean amaituko. Egun hauetan ez da eskolarik izango:

- urriaren 12 eta 13a
- abenduaren 6tik 8ra
- abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra arte
- martxoaren 29tik apirilaren 8ra arte.
- apirilaren 30a
- maiatzaren batean

Astean hiru egunez izango dira eskolak, eta saio bakoitza ordu eta erdikoa. Ordutegia eta eskola egunak XI. ataleko taulan ageri dira.

VIII. BESTELAKO OHARRAK

1.- Ikaspostu kopurua

1.1.- Taldeak osatzeko, gutxienez 11 lagun beharko dira A1 eta A2.1 bitarteko azpimailetan; A2.2tik aurrera, ordea, aski izango da 9 lagunekin. Txandakako ikasleak talde batean baino ez dira kontuan izango.

1.2.- Talde bakoitzeko gehienezko ikasle kopurua 18 lagunekoa izango da.

1.3.- Taldeak bertan behera utziko dira ikasturtean diren bajen ondorioz 6 lagun baino gutxiago gelditzen badira. Baja izan ez diren ikasleei beste talderen batean jarraitzeko aukera emango zaie edo, bestela, ordaindu zuten matrikulatik dagokien diru-zatia itzuliko. Horretarako eskaera aurkeztu beharko dute eta beren kontu korrontea adierazi.

1.4.- Txandaka ikasten dutenei dagokienez, gehienez ere 6 lagun onartuko dira talde bakoitzean.

2.- Asistentziaren kontrola: ehuneko laurogeitik beherako asistentzia-maila dutenek 2018-2019 ikasturtean ikasten jarraitu nahi badute, udal ordenantza fiskal eta prezio publikoetan ezartzen den matrikula arrunta ordaindu beharko dute.

3.- Matrikula sariak itzultzea: 2017ko irailaren 30a izango da matrikula saria itzultzea eskatzeko azken eguna, eta eskabidea idatziz egin beharko da. Ordaindutako zenbatekoaren % 15a atxikiko da kudeaketa gastuengatik. Egun horretatik aurrera ez da matrikula saririk itzuliko.

4.- Talde-aldaketak, eskolak hasi ondoren: ikastaroa hasi ondoren taldez aldatu nahi duen ikasleak idatziz egin beharko du eskabidea, aldaketaren arrazoiak adierazten dituelarik. Irakasleen iritzia entzun eta joan nahi den taldearen lekurik dagoen aztertu ondoren egingo dira aldaketak. Talde berrian onartua izatekotan, Euskara Zerbitzuak berretsi beharko dio aldaketa interesdunari.

5.- Txandaka joaten diren ikasleak: bi talde aukeratu beharko dituzte, lan-txandaren arabera joateko.

6.- Matrikula murriztua ordaintzeko eskubidea honako hauek dute: ikasle berriek eta 2016-2017 ikasturtean eskolen % 80tik gorako asistentzia izan zutenek. Ehuneko hamabosteko hobarria hartzeko eskubidea dute Lanbideren ziurtagiria auzketen dutenek.

7.- Lehenengoa ez den azpimaila batean matrikulatzeko ezinbestekoa da aurreko azpimaila gainditua izatea.



IX. MAILAKATZE PROBAK (A1 AZPIMAILAKOAK EZ DIREN IKASLE BERRIENTZAT)

Ondorengo euskaltegietakoren bat aukeratu beharko dute, bertara deitu eta esaten zaien egunean eta orduan proba egitera agertu. Euskaltegiak ziurtagiria emango die, eta hori aurkeztu beharko dute matrikulatzeko orduan. 2016-2017 ikasturtean euskaltegi batean ikasi badute, ez dute proba hori egin beharko: nahikoa da euskaltegiaren ziurtagiria ikasleak egindako mailaren berri ematen duena.

AEK: 945 263540 (Jose Mardones 8), 945 252400 (Arana 30), 945 217508 (Bartzelona 28)

Hegoalde: 945 284196 (Jose Lejarreta, 9)

IKA: 945 154341 (Adriano VI.a, 18)

Udaberria: 945 223433 (Abendañu, 48)

Itxarote zerrendetan izena emanda daudenek ez dute mailaketa proba egin beharko Udala haiekin harremanetan jarri arte.

X. PROGRAMAREN MUGAK

Baldintzak beteta osa daitezkeen taldeen kostu ekonomikoak aurrekontuaren diru-partida gaintzen badu, beheko azpimailetako taldeak eta ikasle gehien dituztenak hobetsiko dira.

XI. TALDE-ESKAINZA (oraingo egoera; emaitzen arabera moldatu beharko da, baita hasiera-hasierako taldeak sartu)

Taldea	Maila	Gizarte etxea (GE)	Egunak	Ordutegia
ALDABE				
1	A1	Aldabe (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
2	A1	Aldabe (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
3	A1	Aldabe (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
4	A2.2	Aldabe (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
ARIZNABARRA				
8	A2.1	Ariznabarra (GE)	AL-AZ-OR	10:15-11:45
9	B1.2	Ariznabarra (GE) (16-17an AEK)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
10	B1.2	Ariznabarra (GE) (16-17an IKA)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
11	B1.2	Ariznabarra (GE)	AS-OG-OR	15:30-17:00
12	B2.2 hs	Ariznabarra (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
13	B2.2 hs	Ariznabarra (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
14	B2.2 bk	Ariznabarra (GE)	AS-OG-OR	15:30-17:00
ARRIAGA (GE eta kiroldegia)				
15	A1	Arriaga (kiroldegia)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
16	A1	Arriaga (kiroldegia)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
17	A1	Arriaga (kiroldegia)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
18	B2.1 hs	Arriaga (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
HEGOALDE				
19	A1	Hegoalde (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
20	A1	Hegoalde (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
22	A2.1	Hegoalde (GE)	AL-AZ-OG	20:00-21:30
IBAIONDO				
23	A1	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
24	A1	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
25	A1	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
26	A2.1	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00



27	A2.2	Ibaiondo (GE)	AS-OG-OR	10:15-11:45
28	B1.1	Ibaiondo (GE)	AL-AS-OG	20:00-21:30
29	B1.2	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	10:15-11:45
30	B2.1 hs	Ibaiondo (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
32	B2.2 hs	AEK (Bartzelona, 28)	AL-AZ-OR	15:00-16:30
33	B2.2 hs	Ibaiondo (GE)	AS-OG-OR	10:15-11:45
IPARRALDE				
34	A1	Iparralde (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
35	A1	Iparralde (GE)	AL-AZ-OR	15:00-16:30
36	A1	Iparralde (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
37	B2.2 bk	Iparralde (GE)	AS-OG-OR	15:00-16:30
38	C1.1 hs	Iparralde (GE)	AS-OG-OR	15:00-16:30
JUDIMENDI				
39	A1	Judimendi (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
40	A1	Judimendi (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
41	A1	Judimendi (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
42	B1.1	Judimendi (GE) [2016an, 3. urratseko taldea]	AL-AZ-OR	10:00-11:30
43	B1.1	Judimendi (GE) [2016an, 4. urratseko taldea]	AL-AZ-OR	10:00-11:30
44	B1.2	Judimendi (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
45	B2.1 bk	Judimendi (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
46	B2.1 bk	Hegoalde euskaltegia (Jose Lejarreta, 9)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
47	B2.2 hs	Hegoalde euskaltegia (Jose Lejarreta, 9)	AS-OG-OR	10:00-11:30
LAKUA				
48	A1	Lakua (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
49	A1	Lakua (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
50	A1	Lakua (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
51	B1.1	Lakua (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
52	A2.2	Lakua (GE)	AL-AZ-OG	19:30-21:00
53	B2.1 hs	Lakua (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
54	B2.2 bk	Lakua (GE)	AS-OG-OR	10:30-12:00
55	B2.2 bk	Lakua (GE)	AL-AS-OG	15:15-16:45
56	C1.1 hs	Lakua (GE)	AS-OG-OR	10:15-11:45
57	C1.1 hs	Lakua (GE)	AS-OG-OR	15:30-17:00
PILAR				
58	A1	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
59	A1	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
60	A1	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
61	A2.1	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
62	A2.2	Marianistas ikastetxea	AL-AZ-OG	15:30-17:00
63	A2.2	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
64	B1.1	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
65	B1.2	Pilar (GE)	AL-AZ-OR	10:00-11:30
66	B2.1 hs	Zaldiaran euskaltegia (IKA - Badaia, 25)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
67	B2.2 hs	San Viator ikastetxea	AL-AS-OG	15:15-16:45
68	B2.2 bk	Udaberria euskaltegia (Uruguai, 9)	AL-AZ-OR	10:15-11:45
69	C1.1 bk	Udaberria euskaltegia (Uruguai, 9)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
70	C1.2 bk	Udaberria euskaltegia (Uruguai, 9)	AL-AZ-OR	10:30-12:00



71	C1.2 bk	Aratz euskaltegia (IKA - Adriano VI)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
SALBURUA				
72	A1	Salburua (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
73	A1	Salburua (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
74	A1	Salburua (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
75	A2.1	Salburua (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
76	A2.1	Salburua (GE)	AL-AS-OR	15:30-17:00
77	A2.2	Salburua (GE)	AL-AS-OR	10:00-11:30
78	B1.2	Salburua (GE)	AL-AS-OR	15:15-16:45
ZABALGANA				
79	A1	Zabalgana (GE)	AL-AZ-OR	10:30-12:00
80	A1	Zabalgana (GE)	AL-AZ-OR	15:30-17:00
81	A1	Zabalgana (GE)	AL-AZ-OR	20:00-21:30
82	B1.1	Zabalgana (GE)	AL-AS-OR	14:45-16:15

LEHEN ERANSKINA: GURASOENTZAKO IKASTAROAK (curriculum berrira moldatua)		
2017-2018 ikasturteko eskaintza		
Urratsa	Eraitza	Eskaintza (Udala)
1	EZ GAI	A1
	GAI	A2.1
2	EZ GAI	A2.2
	GAI	
3	EZ GAI	B1.1
	GAI	
4	EZ GAI	B1.2
	GAI	
5	EZ GAI	B2.1 has
	GAI	
6	EZ GAI	B2.1 buk
	GAI	
7	EZ GAI	B2.2 has
	GAI	
8	EZ GAI	B2.2 buk
	GAI	
9	EZ GAI	C1.1 has
	GAI	
10	EZ GAI	C1.1 buk
	GAI	
11	EZ GAI	C1.2 has
	GAI	
12	EZ GAI	C1.2 buk
	GAI	



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org